

Gudak

Antton Izagirre

Lau urtez behin Munduko Futbol Txapelketa bezalako gertakari erraldoiak parada ezin hobe eskaintzen digu gure inguruan gertatzen ari denari begira jarri eta zein mundutan bizi garen ikusi eta datorkigunari errepaso kritikoa egiteko. Ikusteko, nola ia mugarik gabeko mundu globalean gauzatzen diren errealitateak, hain anitzak izanik, guztiak kapitalaren, diruaren eta merkatuaren zerbitzura egikaritzen diren eta nola gu guztiok, ustez futbolari begira gauden bitartean, sakonean, kirolek harago, merkatuaren inperioa gailentzen den.

Kapitalari bost axola Munduko Kopanora joango den, horren bidez bilatzen duena irabazien metaketa baita. Merkatuaren guda. Esan izan ohi da futbola gerra egiteko modu berria dela. Nazio-estatuak gogoz prestatzen dira joko horretarako. Dirutzak jartzen dituzte beren ekipoen mesedetan, guda horretan asko baitute jokoan. Besteak beste, nazio-estatu izatearen aldarria. Ikusi dugu nola ateratzen dituzten beren naziotasunaren elementu identitarioak, koloreak, banderak eta batasun ikurrak. Futbol ekipiak identitate ikur bilakatzen dituzte egun gutxi batzuetarako. Futbolaren ai-

tzakian, zeharka bederen, identitate nazionalista herritarrengan txertatzea dute helburu. Kapitalak ez du nazio eta estatuturik baina nazio-estatuei aukera eskaintzen die beren identitate subjektiboa trinkotzeko. Joko-gerra horretan jokalariek bizia joko-zelaian utzi dutela esango digute. Hau, guzti hau, aberatsen iruditegian ematen den bitartean, bada beste guda bat, une eta toki berean jokutzen dena, errefuxiatuak dituen protagonista eta hil ala bizikoa dena. Errefuxiatuek, bizia, bere zentzurik krudelenean, itsas eremuetan uzten dute. Mundu beraren ertzak. •

Itzulera

Miren Azkarate
Badiola

Pasa den larunbatean Orion egon nintzen iheslari eta deportatu politikoen etxeratzea irudikatu zuen Kalera Kalerak antolatutako ekimenean. Ekimen xumea eta beharrezkoa ene iritziz, baina ez oso jendetsua, zoritxarrez, gai hau tratatzen den bakoitzean gertatzen den moduan. Hala ere, han egon ginenok momentu hunkigarriak bizi izan genituen ikusi genuen eszenografia zela eta. Han egon ez zinetenontzat, guk zubi baten gainetik barku txikiak portura iristen

ikusten genituen poliki-poliki. Kaxiaren abestiari buelta eman genion; “itsasontzi baten Euskal Herritik kanpora naramate eta ez dakit nora”. Oraingo honetan, gure senide eta lagunek behartuta egin zuten bide hori alderantziz bizi izan genuen; etxera zetozen itsasontzietan. Oraindik ere 80 iheslari politiko inguru daude mundu guztian zehar barreiatuta, horietatik 14, deportatu politiko. Horien artean nire aita, uztailaren 20an 30 urte egingo dituen Kuban. Denek

edo gehienek bederen, aita adina urte daramatzate Euskal Herritik kanpo, tortura, errepresioa eta kartzela ekiditearren. Eta horrek beste datu bat jartzen du mahai gainean, askok 60 urte baino gehiago beteak dituztela dagoeneko. Bada garaia gai honi ere behar bezala eusteko eta merezi duen garrantzia emateko. Horretarako, lehenik eta behin, guztion babesa eta lana beharrezkoak dira, presoen auzian bezalaxe, guztion indarrarekin ekarriko baititugu iheslari eta deportatuak bizirik etxera. •